

# XEDAPEN OROKORRAK

## LEHENDAKARITZA

### 88

*HUTS-ZUZENKETA, honako lege honena: «10/2021 Legea, abenduaren 9koa, Euskadiko Ingurumen Administrazioarena».*

Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkaria arautzen duen abenduaren 23ko 217/2008 Dekretuko 18.2.a) artikuluan xedatzen denez, Aldizkariaren argitalpena prestatzerakoan egiten diren hutsak, baldin eta dokumentuaren edukia aldatzen badute edo zalantzak sortzen badituzte, Jaurlaritzaren Idazkaritzako eta Legebiltzarrarekiko Harremanetarako Zuzendaritzak zuzenduko ditu, ofizioz nahiz organo edo entitate interesdunak eskatuta.

Era horretako hutsak aurkitu dira Euskadiko Ingurumen Administrazioaren abenduaren 9ko 10/2021 Legearen testuan, gaztelaniazko argitalpenean (2021eko abenduaren 31ko Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkaria, 262. zk.). Hori dela eta, dagokion zuzenketa egiten da hemen:

Azken Xedapenetako Bederatzigarrenean, 2021/6466 (99/69) orrialdean,

honela dio:

«La presente ley entrará en vigor a los cuatro meses de su completa publicación en el Boletín Oficial del País Vasco.»

Baina honela esan behar du:

«La presente ley entrará en vigor el día siguiente al de su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco.»